

MUXIKA » INAMA

Helegiteak jarri dizkiote taldeek arau aldaketari

SOS Muxika: «Helegite hau tramite hutsa da, anpliazioa 2004an hitzartu zelako»

DANEL LAUZIRIKA

Apirileko osoko bilkuran Udalak aldatutako arau subsidiarioari helegiteak jartzeko epea herenegun bukatu zen. Aldaketa horrek Finsa-Inamaren anpliazioa ahalbidetuko luke. Hori dela eta, Muxikako zein eskualdeko zenbait norbanako eta taldek helegiteak aurkeztu dituzte hilabete honetan zehar.

Izan ere, apirilaren 11n egindako osoko bilkuran, Inama ondoko lurrak berkalifikatzea eragozten zuen arau subsidiarioa aldatu zuen Udalak. Arau subsidiario berriak, beraz, lur sail horiek berkalifikatzeko aukera ematen du. Horrela, Inamak bere instalazioan anpliazio-prozesua egiteko aukera izango luke.

Honen aurrean helegiteak jarri dituzten elkarten artean, SOS Muxika eta Urdaibai bizirik daude. Azken hori, Gernikako Merkatarien Elkartek, Ekologi Lan Taldeak, EHNEK, LABek, GAIK, Zain Dezagun Urdaibaik eta Busturialdeko Batasunak osatzen dute.

SOS Muxika herritarren elkarteak, bere aldetik, bi helegite juridiko-tekniko aurkeztu ditu. Helegite horietako bat Finsa-Inamaren aurkako salaketa jarri duten 34 pertsonen sinatu dute. SOS Muxikak herritarren elkarte bezala aurkezturiko helegitea, aldiz, 276 muxikarrek sinatu dute.

Helegite ezberdinak

SOS Muxikako arduradunek Busturialdeko Hitzari adierazi diotenez, «helegiteak jartzea tramite hutsa da, Inamaren anpliazioa 2004an hitzartu zelako».

Euren esanetan, «2004ko urrian adostu zuten Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza sailak, Ingurumen sailak, Urdaibai Biosfera Erreserbako Patronatuak eta eta Muxikako Udalak anpliazioa. Dena dago erabakita baina, hala ere, helegiteak jarri ditugu».

SOS Muxikak aurkeztutako helegite horrek izaera tekniko-juridikoa du eta, besteak beste, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuak 2004an egindako txosten batean oinarritzen da.

Urdaibai bizirik plataformak, bost folioko helegitea aurkeztu du. Plataformako kideen esanetan, «INAMA S.Aren jarduerak legekoak diren arauak bete ez arren, Udalak beste barik bere zabaltze proiektua onartzea onartezina da dagoeneko».

Orain, gutxienez hamar hilabeteko epea behar izango du Udalak helegite guztiak aztertu eta erabaki bat hartzeko.

© Busturialdeko Hedabideak S.L.
Tel.: 946187299 Faxa.: 946881193
E-posta: busturialdea@busturialdekohitza.info
Zubiaurtar Kepa, 72 Bermeo



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea